

Beterri Buruntza garapen agentzia martxan jartzeko azken urratsa



Andoingo Ana Carrere alkatea, Urnietako Mikel Pagola alkatea eta Beterri-Buruntza eskualdeko gainerako alkateak hurbildu ziren Andoingo sinadura ekitaldira.

Lankidetz hitzarmena sinatu zuten Andoainen Beterri-Buruntzako alkate guztiek.

Aurreko agintaldian Beterri-Buruntzako garapen agentzia martxan jartzea ezinezkoa izan zen bezala, badirudi oraingoan abidura bizia hartuko duela. Aurreko hilabeteetan udalerrri bakoitzean pleno bidez lankidetz hitzarmenari baiezkoa eman eta udalerrri bakoitzeko ordezkariek izendatu eta gero, joan zen ostiralean Andoingo udaletxean hitzarmena sinatzeko ekitaldia antolatu zuten. Sinadura ekitaldiari garrantzia handia eman

nahi izan zioten, udalerrri bakoitzeko ordezkaritza gorenari bidali baitzuten.

Hutsunea betetzera dator egitasmoa, Buruntzaldeko garapen agentziarik ez duen eskualde bakarra baita. Bakoitza bere kabuz aritu beharrean, eskualdeko ikuspegiarekin aritzea erabaki dute: "Gipuzkoako beste eskualdeetan garapen agentzien bidez kudeatzen dituzte eskualdeari dagozkion arlo sozio-ekonomikoa eta turismoarekin lotutako programak eta zerbitzuak. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnietako eta Usurbilgo Udalek, ordea, ez dute eskualdeko izaera duen egiturarik eta, horren on-

dorioz, Udal bakoitzak haien kasa egin izan ditu planak eta politikak toki garapena, sustapen ekonomikoa eta enpleguaren alorretan".

Erroka agerikoa da: "herri bakoitzak toki garapena, sustapen ekonomikoa eta enpleguaren alorretan egun dituen baliabideak hobeto aprobetxatzea eta eskualdeko herritarrei eta enpresei zerbitzu bateratua eta hobea eskaintzea".

UDALERRI BAKOITZEKO BINA ORDEZKARI

Antolakuntzari dagokionez, batzorde kudeatzaile bat eratu da udalerrri bakoitzeko bina ordezkaririk izango dituen.


Finantzazioari dagokionez, planak eta programak sei Udalek urtero egingo dituzten ekarpenen bidez finantzatu dira. 2017an, hasteko, proiektuak gauzatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko 1.290.976 euroko aurrekontua bideratuko dute.

GARAPEN AGENTZIA OSATZEKO AZKEN URRATSA

Hitzarmenak lau urteko indaraldia du, baina garapen agentzia eratzea erabakiko balute, hitzarmena bertan behera geldituko litzateke eta programak, proiektuak eta zerbitzuak erakunde berri horrek bereganatuko litzuzke.

[ESKUALDEA, 2-3. ORRIALDEAK]

Piano jaialdiaren edizio berria



Andoingo, Urnietako eta Euskal Herri osoko ia 800 piano-jotzaile Bastero kulturgunetik igaroko dira, asteburu osoan zehar. Iritsi da Andoingo Piano Jaialdiaren edizio berria, hamabigarrena aidanez, oraingoan **Deiadar** elkartearen eskutik. **Myriam Ulanga**, **Txitxu Castro** eta **Ainhoa Aiertza** dira antolatzailer nagusiak, eta bolondres eta laguntzaile ugari izango dituzte alboan. Baita Andoingo Udalaren laguntza ere. Ateriko emanaldiak egin dituzte astelehenean hasita, eta astebururako piano-jotzaileentzat zirrargarria izango den jaialdia utziko dute. Musikariek erroka bikoitza izango dute, norberaren maila gainditzea eta jendaurrean aritzea.

[GEHIGARRI BEREZIA]



EGAPE IKASTOLA

BIZITZARAKO HEZKUNTZA

MATRIKULA ZABALIK!!

URTARRILAREN 30etik OTSAILAREN 10era

WWW.EGAPE.ORG



ERREPORTAJEA

Beterri-Buruntzako ekonomiaaren erradiografia

Joan zen abenduan, eskualdeko ekonomiaaren erradiografia egin zuten Andoaingo Basteron Aiurrik eta Tokikomek antolatu zuten mahai-inguruan. Miren Estensoro Orkestra lehiakortasun institutuko

ikertzaileak eta Nerea Yurrebaso Andoaingo Udal teknikariak Beterri Buruntzako enpresa munduko datuen adierazleak eskaini zituzten.

Eskualdeak dituen indarguneak eta ahulguneak, nazioartekotzea edota etorkizunerako erronkak hizpide izan zituzten. Sortzeko bidean dagoen garapen agentziak ekonomia suspertzeko izan dezakeen garrantzia ere aztergai izan zuten.

Miren Estensorok, lehiakortasunaren ikuspegitik, eskualdea Gipuzkoako beste eskualdeekin alderatuta erdibideko mailan ipini zuen. Eta horretarako hainbat datu erabili zuen. Besteak beste, barne produktu gordina (32.000 euro per capita) edota langabezia tasa (10-12%): “Eskualdea, 70.000 biztanlerekin, erdibideko lehiakortasun mailan dago Gipuzkoako beste eskualdeekin alderatuta. Ezaugarri nagusia dibertsifikazioa da; ez dago sektore espezializazio garbirik. Denetik du pixka bat. Horrek irakurketa negatiboa izan dezake. Hau da, lehiakor den bitartean ondo ibiliko da, baina zailtasunak sortuz gero, azkar batean ataka estuan jar daiteke. Alde positiboa, historian zehar moldatzeko erakutsi duen gaitasuna da”.

Nerea Yurrebasok eskualdeko ikuspegitik, oso gutxitik jarraitzen du Estensorok egiten zuen erradiografia hori. Eta datu gehigarriak eskaini zituen: “Gure eskualdean espezializazioa ez dago oso sakonduta, ez. Metala, energia, petrokimika edo plastikoa..., dene-



Nerea Yurrebaso, Andoaingo Udal teknikaria, Beterri-Buruntzako eskualdeko ekonomian aditua.

tik dugu. Ez da tamainan sektore handia, eta gainera krisiarekin tamainan txikituz joan dira eta hori nazioartekotzeari begira, adibidez, eragozpen handia da. Orain arte egin dugun lan gehiena gure enpresak aztertu eta etorkizunera begira jartzen saiatzea izan da. Digitalizazio prozesuan edota 4.0 fabrikazioan, esaterako, etorkizuneko metalgintza eta manufaktura eredu berria garatzen hasteko gabeziak ditugu”.



Miren Estensoro, Orkestra lehiakortasunerako Institutuko ikertzailea.

Kualifikazio maila handitzea etorkizuneko erronka izango da: “Eskualdeko enpresek manufaktura aurreratuan urratsak emateko aliatuak edota bidelagunak aurkitu beharko dituzte. Gipuzkoa eta Euskal Herria txikiak dira eta saretzea ezinbestekoa izango da. Horixe bultzatu beharko genuke eta horretarako erabakiak hartu beharko lirarteke. Horri lotuta, eskualdean lanbide heziketa puntakoa da, eta horren balioa

azpimarragarria da. Kualifikazio maila handiko postuetarako, besteak beste lanbide heziketako formakuntza duten langileak beharko dira. Balioan jarri behar da hori. Alemanian, esaterako, lanbide heziketako ikasleak garrantzia handikoak izan dira digitalizazio prozesuan”.

Erronkak askotxo dira, Estensororen analisiari erreparatuta: “Oraindik orain, eskura dauden datuek ikerketa eta garapenari bideratutako gastuan eskualdea Gipuzkoako batz bestekoaren azpitik dagoela adierazten dute. Datu on modura, garapen agentziaren ikuspegiarekin dinamika berria abiatu da. Zein eskualde nahi den partekatzeo nahia agertu da. Gainerako eskualdeetan egin bezala, bertan ere agentzia martxan jartzeko une ona da”.

Bidea elkarrekin egin beharra dagoelako, hori oso garbi adierazi zuen Yurrebasok: “Eragile guztiekin tokiko garapena lantzen hasi gara, eta oso inportantea da guretzat esperientziak partekatzea. Zein behar ditugun ikusi eta etorkizuna nola landu, horixe da erronka nagusia. Zeren eta etorkizuna, bai ala bai, denon artean eraiki beharko dugu. Garapen auto zentratua deritzona landu beharko dugu, ditugun beharren arabera tokikoa indartzen saiatu beharko dugu. Eta horretarako elkarlana gakoa da”.



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Txotx'17

Euskal kantu liburuxka
Aiurriekin batera jasoko dute
Aiurriko harpidedunek, laster!!

2017ko egutegi gehiago nahi? deitu: 943 300 732



ERREPORTAJEA



Nolako eskualdea dugu? Nolako eskualdea nahi dugu?

Basteroko ekitaldian Nerea Yurrebasok bideo bidez eskualdeko errealitate ekonomikoa azaldu zuen.

NOLAKO ESKUALDEA DUGU?

- Ezaugarri anitzeko, elkarren artean oso ezberdinak diren enpresez osaturikoa da.
- Malgua, garaian garaiko testuingurura moldatzen jakin duena.
- Moldagarria, etorkizunera egokitzeko gaitasuna eta jarrera erakusten duena.
- Saretu gabeko eskualdea da, bakoitza bere bidean doa elkarren berri izan gabe eta norabidea konpartitu gabe. Aurrerapausoak elkarrekin ematea izugarri kosta egiten zaio, baina era berean, geldirik ez dagoena, eta etorkizunari aurrea hartzeko prest dagoena.

NOLAKO ESKUALDEA NAHI DUGU?

- Garapen jasangarria eta bertako biztanleen ongizatea bermatuko dituen eskualdea beharko genuke.
- Zerbitzu eta tresna sare eraginkorrek eskaini beharko lituzke.
- Eskualdeko eragileen arteko harremanak landu beharko lituzke, elkarlanean eta sarean lan egingo duena.
- Talde ikuspegi zabalarekin eta ikuspegi estrategikoarekin lan egiteko gaitasuna garatu beharko litzateke, garaian garaiko beharrei erantzuneko diona.
- Pertsonen gaitasunak eta aukerak handituko dituen eskualdea izatea lortu beharko genuke.

- Eskualde izaera errotu beharko litzateke, era berean beste eskualdeetara irekita eta harrera egiteko prest egongo dena.
- Berrikuntza eta sormena etengabe garatzea.
- Hizkuntza, kultura eta lurraldea bera balioan jartzea.

ETORKIZUNERAKO GAKOAK

- **Gizarte berrikuntza kontuan hartzea**
Eskualdeko enpresa guztietara helaraztea: 4.0 ekoizpena, ekonomia zirkularra, adimen lehiakorra, merkatu globalak vs tokiko kateak, gizarte erantzukizuna, ekonomia soziala eta feminista, pertsonen partaidetza enpresetan...
- **Foro sektorialak sustatzea**
Lankidetzak egitasmoak aztertu eta garatzeko bilkurak sustatzea, hala nola, fabrikazio foroa, turismo eta merkataritza-ostalaritza foroa, lehen sektoreari bideratutako foroa, etab.
- **Ikuspegi sozialarekin lan egitea**
Behar sozialak ikusita enplegu soziala sustatu behar da, eta ihes egiten digun talentuari ahalik eta gehien eustea. Gure langilego gaztea prestatuta dago, baina bertatik kanpora joaten da lan bila. Adinekoen, etorkinen, gazteen, emakumeen eta epe luzeko langabetuen beharrak aztertu eta euren jakinduria hobeto aprobetxatzeko moduak aurkitu beharko genituzke.

Kabiene, langile kualifikatuen eta autonomoen bilgunea

Norberak bere kabuz abiatuta zailtasunak besterik topatuko ez dituela eta, Usurbilen autonomo eta *freelance* ororentzat irekita dagoen bilgunea udazkenean zabaldu zuten. Beste herrietara zabaltzeko eredu interesgarria da, berrikuntzaren bidean.

Nola aurkeztuko zenukete egitasmoa?

Jon Aizpurua: Usurbilgo *freelance* eta autonomoen elkarte bezala aurkeztu dugu gure burua. Gure helburu nagusia da, kideon egoera profesionalak bultzatu eta hobetzea, eta elkarlanerako gune izatea.

Julen Arteaga: Asmoa zen, bakoitzak espazioa izatea etxetik egiten genuen lana egiteko.

Jon Aizpurua: Orain arte bezeroekin tabernetan edo ahal zen lekuan biltzen ginen eta arazo bat zen. Profesionalki garatzeko aukera emango zigu leku bat behar genuen.

Ogibide ezberdinetan ari zarete lanean. Nola bildu zarete?

Jon Aizpurua: Udalera joan ginen lehenbizi, etxetik lan egiten zuten herrietarren erregistrorik bazen jakin nahian, baina ez zegoen ezer. Ahoz aho, tabernetan galdetuta, hala elkarrekin ginen.

Julen Arteaga: Facebook bidez autonomoentzako bilera baterako deia egin zen eta ni hala enteratu nintzen.

Jon Aizpurua: 6-8 bat kontaktu lortu

genituen hasiera batean. Facebook bidez gero, 20 bat lagunekin harremanetan jartzera heldu ginen.

Ezusteak izan al da herrian azaleratu dena?

Jon Aizpurua: Ez dakigu zenbat jende dagoen interesa izan lezakeena. Badakigu seguruenen 20 lagun baino gehiago egongo direla. Gure artean zeuden, autonomoak zirenak, langabezian geratu zirenak, edota autonomo izateko asmotan daudenak. Baina badakigu badagoela jende gehiago etxean lanean ari dena.

Zein lanbide duzue bertakoek?

Julen Arteaga: Itzultzailea, komunikazioa eta diseinuan aritzen dena, bideo editorea eta post-produkzioan dabilena, argazkilaria, web diseinatzailea, eta bi arkitekto ditugu. Denetik dugu.

Bakoitzak bere espazioa du lanerako, baina elkarlanerako aukerak ere sor al daitezke?

Jon Aizpurua: Lehen asteetan jada sortu ziren aurreneko elkarlanak. Bezero batek ezagutzen ez zuen zerbitzu bat aurkitu zuen hemen eta aberastu egin du bere produktua, hemen beste zerbitzu kontratatuta. Etorri dira aurrekontua eskatzera, jakinda hemen zein dagoen lanean.

Julen Arteaga: Gure ideia Kabiene erreferentzia puntu bihurtzea da.

www.kabiene.com



Gipuzkoako ekonomia, eskualdez eskualde

Andoingo solasaldia
[2016-12-20] ikusgai:
Ekonomiagurean.eus

TOKIKOM



Aiurri

Krosa igande honetan, Salesiar ikastetxean

Igandean **On Bosko Krosa** antolatuko du Salesiar ikastetxeak, goizeko 11:00tan hasita. Lasterketak Urnietako kaleak zeharkatuko ditu 7 kilometro inguru dituen ibilbidea osatuz. Izen-ematea ikastetxean ber-

tan egin daiteke 10 euroren truke. Krosa amaitu eta gero, ikastetxean bertan dutxa eta hamaiketako beroa hartzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Gainera, hainbat opariren zozketa egingo dute.

Prozedura susmagarria

Astearteko plenoari amaiera emateko, **Mikel Pagola** alkateak herritarrei Urnietan dabilzan komertzialekin kontuz ibiltzeko mezua zabaldu nahi izan zien. Iberdrolaren izenean, Prodexa enpresa kataluniarreko komertzialak kanpaina "zalantzagarria" egiten ari omen dira herrian: "Etkez etxe proposamen bat egitera joaten dira, gas pro-

panoaren truke gas naturala eskainiz. Horretarako, hainbat mezu zabaltzen dituzte: gas propanoa ez dagoela baimenduta, gas naturalerako aldaketa behehala izango dela, aldatzen ez badute gasik gabe geratuko direla etxetan...". Hau guztia "gezurra" dela ohartarazi zuen alkateak eta, ondorioz, herritarrei zuhur jokatze eskatu zien.

Sari potoloak aurtengo Antia literatur lehiaketan

On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketa martxan da. Lanak aurkezteko epea zabalik dago, datorren martxoaren 31ra arte. Hiru maila desberdinetan sarituko dituzte lanak: haurrak, gazteak eta helduak.

Gazteen kategoria: 12-16 urte bitartekoak, herritarrek edo herriko ikastetxe bateko ikasleak. Luzera: 3-8 orrialde. Sariak: 1. saria: 500 euro. 2. saria: 300 euro. 3. saria: 150 euro.

SARI POTOLOAK

Haurren kategoria: 12 urtetik beherakoak, herritarrek edo herriko ikastetxe bateko ikasleak. Luzera: 2-4 orrialde. Sariak: 1. saria: Tablet bat. 2. saria: Ebook bat. 3. saria: Ebook bat.

Helduen kategoria: herriko nahiz kanpoko idazle helduak. Lanen luzera 8-20 orrialdekoa izango da. Sariak: 1. saria: 1.800 euro. 2. saria: 1.000 euro.

Oinarriak: urnieta.eus

Korrika batzordea osatu da



Korrika, iaz, Urnietan sarbidea egin zuenean.

Aurreko ostiralean martxan jarri zuten Korrika batzordea eta bertara hezkuntza eta euskara mailako eragileak hurbildu ziren. Besteak beste, herriko hiru ikastetxeetako ordezkariak, eta AEK eskultegiko eta Iñistorra eskultzaleen biltzarreko ordezkariak.

Korrikaren datu zehatzak eskaini zituzten lehen bilera

horretan. Esaterako, aurten ere Korrika Andoaindik Hernanirako norabidean igaroko da. Zehazki, datorren apirilaren 4an goizeko 10:30ak aldera. Ikasleek, beraz, parte hartze zuzena izan dezakete euskararen lasterketan. Hori dela eta, aurten ez da Korrika Txikia antolatzea aurreikusten. Kultur jardueraren bat antolatzekotan dira.

Urnietarren laguntza Belgrado bidean, tolosarrekin bat eginez

Errefuxiatuekin elkartasuna

Orain egun gutxi Urnietan ekinaldia antolatu zen Europako mugetan baldintza ezin kaskarragoetan pilatuta dauden errefuxiatuei laguntza bidaltzeko. Ekinaldian urnietarrek mantak, berokiak, galtzak, jertseak, berotzeko arropak, botak... denetarik eman dute. Parrokiko bolondresak horiek guztiak sailkatu eta kutxatan sartu ondoren, Tolosako San Frantzisko elizara eraman zituzten, beste ehunka herrita-



rrek emandakoekin bat egiteko. Furgoneta goraino beteta eraman zuten urnietarrek Tolosara, errefuxiatuei helarazteko. Ekinaldian lanean jardun duten bolondresak ahalegina guztiz arrakastatsua izan dela aditzera eman nahi diete urnietarrei, eta bide batez esker ona adierazi arropa eman duten herritar guztiei, Aiurri asfekariari, Sarobeko antzerki taldekoei eta Urnietako Parrokari berari.

Urnietako Udalaren eta San Marko Mankomunitatearen artean

Hitzarmen berria

Asteartean Urnietan ez ohiko osoko bilkura izan zen eta bertan Urnietako Udalaren eta San Markos Mankomunitatearen arteko hondakinen bilketarako lankidetzaren hitzarmena berritzea onartu zen.

PSE-EEK abstentziora jo zuen. **Consuelo Frutos** zinegotziak azaldu zuenez, ez dituzte diru kontuak ulertzen: "2016an zerbitzu honen gastua 53.698 eurokoa zen. Jai egunetan izan ezik, erre-

fusa egunero biltzen zen eta bolumen handikoak astean behin. Orain, ordea, prezio berean aste osoan bi aldiz soilik jasoko dute errefusa. Non daude abantailak? Ez dugu mesedegarria ikusten". **Mikel Pagola** alkateak erantzun zion ez dela bilketa soilik kontuan hartu behar eta hitzarmen honekin, bilketaz gain, mankomunitatea arduratuko dela edukiontzien reposizioaz, mantenuaz edota, erosketaz.

EH-Bildu ados agertu zen, baina **Mikel Izagirre** bozeramaileak hitzarmenaren prozedurarekiko desadostasuna agertu zuen: "Hitzarmena martxan jarriko da, baina proposamena Udalaren partetik iritsi beharrean, beste entitate batetik etorri da". Hala ere, "hitzarmen honek birziklapen tasan onurak ekarriko dituelakoan" baiezkota eman zuten, sailkapen bidean egiten diren ekimenak babestuz horrela.

Proposamenak aurkezteko otsailaren 12ra arteko epea dago

Parte hartze prozesua

Udalak parte hartze prozesua abiatu du, inbertsioen artetik ehun mila euroko partida herritarrek erabakitzeke. Besteak beste, Udal-eskumenekoak diren proposamenak egin beharko dira, hala nola, obrak, hirigintza

eta mantentze-lanak. Ekonomia edo/eta teknika aldetik bideragarri izan behar dute. Proposamenak Bertan, Lekaio, Kiroldegia, Denda Berri, Anbulatorioa edota ikastetxeetan aurkez daitezke hilaren 12a baino lehen.

INFORMAZIO KARPA:

■ Otsailak 3, ostirala:

10:00-14:30 Etxeberri plaza.
17:00-20:00 Guria ondoan.

■ Otsailak 4, larunbata:

10:00-14:30 S. Juan plaza.
17:00-20:00 Kiroldegia.

400 euroko sariak euskaraz ikasteko aukera egin dutenen artean

Gidabaimena euskaraz

2016an gidabaimena eskuratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gauditu zuten Beterri-Buruntzako hiritarren artean 400 euroko hamar sari zozketatu zituzten. Sarituen berri aurreko ostiralean eman zuten. Urnietan, autoeskola bakarra dagoela kontuan izanda, sari bakarra eman da. Irabazlea, **Beñat Lizaso** izan da.

Andoain herriari bi sari zegozkion eta hauexek izan dira irabazleak: **Xabier Iburguren** eta **Ainara Paredes**.




ESKUALDE MAILAKO EKIMENA

Beterri-Buruntzako sei Udalek, euskara sustatu asmoz, eskualdeko autoeskolekin lankidetzan euskararen erabilera areagotzeko egitasmoa aurrera daramate. Egitasmo horren helburua autoeskoletan matriculazten diren ikasleek B1 gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikastea da, eta azterketa ere euskaraz egitea. 2016koei dagokionez, ostiral eguerdian Lekaion egin zuten zozketa.



Euskal Herri osoko piano-jotzaileen agertoki nagusi bilakatu da Andoaino Piano Jaialdia

Euskal Herri osoko musikari gaztetxentzat ezinbesteko hitzordu bilakatu da Andoaino Piano Jaialdia, ikasturtearen erdialdera iristen den mugarrietakoa. Musikariak erronka bikoitza izan ohi du, norberaren maila gaitztea eta jendaurrean aritzea. Azken hori, jendaurrean aritzearena, ez da oso ohikoa izaten piano-jotzaileen artean eta horregatik da hain erakargarria Andoaino jaialdia. Ehunka musikari gazte eta familia hurbilduko dira asteburuan, eskuz banaka edota binaka pieza ezberdinak eskaintzera. Andoain piano doinuz beteko da, eta kalez kale jaialdiaren ikur bilakatu diren zapiak nabarmenduko dira. Sortu zenetik, jaialdia osatuz eta handituz joan da. Dagoeneko aste osokoa baita Andoaino Piano Jaialdia.



ANDOAINO UDALA



bastero
KULTURGUNEA

Andoain bizi! Bizi Andoain!

Ongi etorriak bisitariak Andoainera,
gozatu gure herriaz,
merkataritzaz eta ostalaritzaz

Andoaino
Piano
Jaialdia

Otsailak 4-5
2017
Bastero

Piano jaialdiaren atarikoak asteleheneretik ostiralera



Oroith abesbatza, astelehenean

Andoainen aski ezaguna da haur, gazte eta helduen abesbatzako zuzendari Katriñ Iturralde. Bere musika jarduera haratago doa, eta 2000. urteaz geroztik Oroith abesbatzako zuzendaria ere ba-

da. Goierri aldean sortua, nazioartean hainbat bider aritu izan dira. Abesbatza ziklo ezberdinetan ohikoa da euren parte hartzea, eta bere ibilbide osoan zehar hainbat sari jaso dituzte.



Musikari gazteak, asteartean

Andoaingo Udal musika eskolan trebatu eta ibilbide oparoa egiten ari diren herriko bi musikari zuzenean ikusteko aukera izan zen Bastero kulturgunean. Mikel Urdangarin bibolin-jotzaileak ira-

kasle eta piano lanak uztartzen ditu. Carlos Rubio, aldiz, Zero Sette akordeoi orkestrako perkusionista izan da eta gaur egun Musikeneko metalen taldeko perkusionista da.



Piano-jotzaile gazteak, ostegunean

Txitxu Castro eta Myriam Ulanga piano irakasleen ikasleek asteburuan joko dituzten musika obren aurrerapena eskainiko dute.

OTSAILAK 2, OSTEGUNA

- 19:00. Basteroko ekitaldi aretoa.
- Asteburuko piezen aurrerapena, Andoaingo ikasleen eskutik.



Kontzertu didaktikoa, ostiralean

Scot Joplin konpositorearen heriotzaren urteurrenean, Andoaingo Udal musika eskolak haren musika ardatz duen ikuskizuna eskainiko du.

OTSAILAK 3, OSTIRALA

- 17:30. Bastero auditorioa.
- Haur eta gaztetxoek emanaldia.
- 45 minutuko iraupena.

“Bisitariak, ongi etorriak Andoaingo Piano Jaialdira”



Itxaro Aizpurua, Maddi Elizondo, Ainhoa Aiertza, Txitxu Castro, Esti Mujika eta Myriam Ulanga aurreko ostiralean, 2017ko Piano Jaialdiaren aurkezpen ekitaldian.

Gutxi-asko hori adieraztera agertu ziren hedabideen aurrean hamabigarren edizioaren aurkezpen ekitaldian. Ehunka lagun hurbilduko baita larunbatean eta igandean Andoainera, Euskal Herrian parekorik ez duen Piano Jaialdian parte hartzera. Parte hartzera edota laguntzera. Izan ere, 6-18 urte arteko piano-jotzaileekin batera familia asko hurbilduko da Basterora. Andoainen bertan bizi direnentzat ere aukera paregabea da, Basteroko auditorioan eta ekitaldi aretoan eskaintzen diren emanaldi guztien sarrerara doakoa baita. Etxeko edota kanpoko izan, denontzat ere deskubrimendu aparta izango da Piano Jaialdia bertatik bertara ikusi ahal izatea.

Astelehenetik ostegunera antolatutako emanaldi sorta atarikoak izan da. Ostiral arratsaldean kontzertu didaktikoaz gozatzeko aukera eskainiko dute, zeinean txikienek musikaren munduan egiten dituzten lehen pausoak ikusteko tartea izango den. Larunbatean eta igandean, goizetik gauera, ia zortzirehun musikari igoko dira Basteroko auditorioan eta ekitaldi aretoan taula gainera. Domina eskuratzea eta ikusleen txaloak jasotzea, erronka aparta bakarka aritzea ohiko duen piano-jotzailearentzat.

Esti Mujika

ANDOAINGO UDALA
KULTURA ZINEGOTZIA

Deiadar elkarteari esker ona adierazi behar diogu lan handia egiten ari direlako. Eta ez genituzke irakasleak aipatu gabe utzi nahi

“Oso pozgarria da Andoain horrelako jaialdi batekin lotzea, eta beste behin ere musikaren bitartez Andoain ezagutzera ematea. Pianoa bakarka lantzen den instrumentua da eta jaialdi honi esker lau eskutara, sei eskutara aritzeko joera sustatzen ari da. Jaialdiak izan duen garapenarekin, pianoa elkarrekin jotzeko eta elkarrekin entzuteko jaialdia da. Deiadar elkarteari esker ona adierazi behar diogu lan handia egiten ari delako. Eta ez genituzke irakasleak aipatu gabe utzi nahi. Musikari gazteak taula gainera igo ahal izateko ikusten ez den prestaketa handia dago. Asteburuko jaialdiaren atarian hainbat ikasleren emanaldiak ikusteko aukera izan da, eta horietan argi geratzen da irakasleen lana sakona dela”.

Myriam Ulanga

DEIADAR ELKARTEA
PIANO IRAKASLEA

Piano-jotzaileak asteburu osoan zehar nagusiki bakar-ka arituko dira, baina beste jardueretako kopurua ere azpimarragarria da

“758 partaide izango ditugu aurtengo edizioan, modalitate ezberdinetan. Nagusiki bakar-ka arituko dira, baina beste jardueretako kopurua ere azpimarragarria da. Lau eskutara 138 partaide arituko dira, eta sei eskutara beste 39 gehiago. Aurten ikasleen esku utzitako errepertorioa aurreko urteetan baino zabalagoa izango da. Zehazki, asteburu osoan zehar 239 pieza ezberdin entzuteko aukera izango da. Sei eta hamazortzi urteko musikari bana izango ditugu aurten, eta kopuru aldetik gehien- goa bederatzita eta hamaika urte artekoak izango dira. Gipuzkoatik datoz gehienak, logikoa denez. Baina Bizkaitik eta Nafarroatik ere dezente etorriko dira. Estrainez, gainera, Iparraldeko bi musikari arituko dira”.

Ainhoa Aiertza

DEIADAR ELKARTEA
AURKEZLEA

Andoaindarrei asteburuan Basterora hurbiltzeko deia luzatu nahiko genieke, pianoa gogoko dutenek atek zabalik izango baitituzte

“Asteburuan Euskal Herri osoko ehunka piano-jotzaile hurbilduko da Andoainera, baina andoaindarrek eta inguruko herrietakoek jaialdiaren hamargarren edizioaz gozatzeko aukera izango dute. Emanaldi horietan pianoarekin batera osagarri diren beste musika tresna ezberdinen emanaldiak ikusteko aukera izango da. Asteburuko jaialdiari begira, kontzertuak ikusteko aukera irekita dago edozeinentzat, sarrerara doakoa izango baita. Basterora hurbiltzeko deia luzatu nahiko genieke andoaindarrei, pianoa gogoko dutenek atek zabalik izango baitituzte. Modu horretan herriko musikariek duten maila handia ikusteko aukera izango dute. Etorkizuna euren esku dago; merezi dute herrian bertan protagonista izatea”.

Andoaingo, Urnietako eta Buskal Herri osoko partaideak



Urnietako Lurdes Iriondo Musika Eskolakoek joan zen asteazkenean Saroben entsegu orokorra egin zuten, Andoaingo Piano Jaialdirako prestakuntza modura.

2017ko edizioa

Andoain

A KATEGORIA

Ariane Rodriguez Muñoz
Japanese Temple M. Mier
Nora Urtasun Vicente
Cotillon Polka D. Agay
Alba Valor Echeverria
Moonlight W. Gillock
Ander Villar Amores
Danse Ancienne Gnyesina
Maddi Azpiroz Roca
Danse D. G. Türk
Michelle Castillo Chacón
Le Robot G. Meunier
Udane Gorospe Barrio
Sophisticated Ragg M. Mier
Leire Hernandez Dominguez
Fuchs, Gib Acht! Batzuk
June Pastor Azofra
Nº30 Op. 197 Gurlitt

BIKOTEA A

Malen Ariztimuño Balentziaga
Maddi Landa Anabitarte
La Marionnette T. Masson
June Azpiroz Delgado
Nere Barón Arriet
Three Scottish Jigs. The First J. R. Strickland

Ane Miner Amiama
Albiñe Otego Barranco
The Butterfly Konp. T. Hirao

B KATEGORIA

Haizea Harnaiz Goya
Jessie Louise Chamberlain
Eneko Brosa Lacalle
Walking In Shadowa Louise Chamberlain
Maddi Elizondo Txintxurreta
Parisian Waltz M. Mier
Naia Galindo Garcia
Cherry Blossoms In Osaka M. Mier
Eneko Gorospe Barrio
Melodie F. Burgmüller
Libe Irulegi Mungia
Amanecer J. Guridi
Leire Iturralde Alfonso
Campanas del Monasterio A. G. Abril
Ioritz Jimenez Arizala
Metal Merchant Ch. Norton
Aimar Murua Poza
Rhapsody Ch. Norton
Naia Murua
Poza Dance Of The Scarecrow M. Mier
Udane Oyazabal Mendizabal
A Scottish Jig For Jake M. Mier
Jon Otxandorena Saa
Sonatina Nº 62 Mov. Andante R. Vinciguerra
Miren Zumeta Ugartemendia
Slow Waltz Gedike

C KATEGORIA

Itxaro Aizpurua Arconada
Refrain Du Gondolier Burgmüller
Nahia Sarasola Fernandez
Argentina Tango M. Mier
Oihane Ulanga Etxeberria
Las Sifides J. F. Burgmüller
Mattin Yusta Ciganda
La Tempertad J.F. Burgmüller
Maddi Bekarte Irigoras
Castanets W. Gillock
Beñat López Amado
La Campana De Maitines J. F. Burgmüller
June Miner Irazu
Bat-Batian A. Donostia

Urnietako

A KATEGORIA

Alain Ugarte Beristain
Moonlight W. Gillock
Izaro Agra Rodrigo
Mysterious procession D. Agay
Markel Azkarate Vaquero
Le Robot G. Meunier
Joane Caballero Holgado
Old Fashioned Minuet P. Wedgwood
Enara Donavera Garcia
Firefly Waltz M. Mier
Ane Garcarena Martin
The Somersault King M. Schoenmehl

Sara Intza Mujika

Danse Indienne W. Gillock
Anitz Jauregi Crespo
Danse Indienne W. Gillock
Eider Medina Cuadrado
N4 Op82 Gurlitt
Daniela Novo Gebremedhin
Policías Y Ladrones J.S. Bastien
Sara Novo Gebremedhin
Old Fashioned Minuet P. Wedgwood
Estitxu Perez Herrero
Mission Impossible P. Wedgwood

BIKOTEA A

Ander Pascual Gonzalez
Eneko Rosco Etxezarreta
Cabaret R. Vinciguerra

B KATEGORIA

Gariñe Serrano Belaustegioitia
Sonatina 2 -2 R. Vinciguerra
Eva Taracena Castellvi
Parisian Waltz M. Mier
Ane Donavera Garcia
Sonatina 2 -2 R. Vinciguerra
Ekain Etxeberria Zabala
Carnival In Rio W. Gillock
Iñigo Pascual Gonzalves
Mean Streets J. Kember

Bi herrietako musika eskoletako ikasleak dira.

PSE-EE aurka agertu zen, gainerako guztiak alde azaldu ziren

Adostasun handia aurrekontuen bozketan

Urtarrilaren 26ko Udal batzaraldian aztergai gutxi zeuden, baina horietako bat urteko garrantzitsuenetarikoa izan ohi da, eta berau aurrekontu orokorren eztabaida eta bozketa izan zen. Ana Carrere alkateak egin zituen aurkezpen lanak, hainbat xehetasun eskainiz. Ordurako ezaguna zen 17 zinegotzietatik 13 alde agertuko zirela. Adostasun handia izan da, beraz, aurtengo aurrekontua onartzeko garaian. Gobernu taldea osatzen duen EH Bilduk aurrekontua onartzeko EAJ-PNVrekin akordioa lortu zuen lehenik. Eta handik egun batzuetara Ganemos, Irabazi eta Zinegotzi ez atxikiaren babesa ere eskuratu zuen. Ikustear zegoen PSE-EEren jokatubidea zein izango zen, baina aurreikus zitezkeen ez zela aldekoa izango.

Esan bezala, **Ana Carrere**k defizit gabeko aurrekontua aurkeztu zuen, eta Udalaren berezko baliabideekin egingo dituzten inbertsioak zerrendatu zituen: Doktor Huitzi kaleko parke berria, kale eta espaloien berrikuntza, irisgarritasuna hobetzeko neurriak, hiri barruko zuhaitzen kimaketa berezia, Renfe-Adifeko etxola berritzea, etab.

Pozik agertu zen alkatea aurkeztu zuen aurrekontu proposamenarekin, "ikuspegi sozialeko aurrekontua da. Aurreko urteetan egin bezala, Gizarte zerbitzuetako partidak handituz joan gara helburua herritarren ongizatea bermatzea baita. Urrats txikiak, baina garrantzitsuak dira". Eta jarraian alor sozialean hartuko dituzten neurri berriak aipatu zituen: Argindarrak gain, gasa ordaindu ahal izateko laguntzak, mikrokreditoak, eskolaz kanpoko jarduerak egin ahal izateko beka sistema, etab.

Segidan, hitza eman zien gaineko Udal ordezkariak.

Marijose Izagirre (EAJ-PNV): "EAJ-PNVk parte hartze zuzena izan du aurrekontuen lanketan, herrikideen behar handienak kontuan hartuz. Hori dela eta, alor sozialean lanketa berezia egin da. Bestalde, 2016an hasitako inbertsio planarekin jarraitzea nahi dugu".

Olga Hernandez (Ganemos): "Gobernu taldeak proposaturikoarekin bat egingo dugu, izaera soziala duela nabarmentzen delako. Irabazi eta zinegotzi ez atxikiarekin batera elkarlanean proposamen ezberdinak egin di-



Urtarrileko batzaraldian 2017ko aurrekontu proposamenari balezkoa eman zioten.

"Gizarte zerbitzuetako partidak handituz joan gara helburua herritarren ongizatea bermatzea baita"
Ana Carrere (EH Bildu)

"2016a perfektua izan dela dirudi, eta sozialistok iaizko Udal jardueran argiak eta itzalak ikusten ditugu"
Maidar Lainez (PSE)

"Parte hartze zuzena izan du aurrekontuen lanketan, herrikideen behar handienak kontuan hartuz"
Marijose Izagirre (EAJ)

"Gobernu taldeak proposaturikoarekin bat egingo dugu, izaera soziala duela nabarmentzen delako"
Olga Hernandez (Ganemos)

tugu, hala nola, Udal eraikinen berrikuntzarako partidak proposatuz edota parte hartzean eta gardentasunean konpromiso garrantzitsuak lortuz".

Jorge Mourinho (Irabazi): "Bat gatz proposamenarekin, eta hartutako konpromisoek garrantzia handia dute guretzat".

Alvaro Gonzalez (Ez atxikia): "Adostasuna lortu duten alderdi guztiei zorionak eman nahi dizkiet, eta alor sozialean egindako proposamenak nabarmendu nahiko nituzke".

Jon Zulueta (EH Bildu): "Aurrekontuen lanketan parte hartu dut eta Gobernu taldeko bozerramaile bezala guretzat egun garrantzitsua da. 2017ko erronkei aurre egiteko txanpa hartzeko baliagarria izateaz gain, 2016an egindako balorazio positiboa da. Aurrekontuei dagokionez, iaz abian jarritako dinamika eta aurre onarturikoa, balio handikoa da. Kuantitatiboki, aurrekontuak babes zabala lortu duelako. Eta kualitatiboki oso izaera ezberdineko alderdien babesa jaso duelako. 2017an dinamika hori indartuko dugu, aurrekontuaren garapena kontrolatzeko sistema ezarri".

Maidar Lainez (PSE-EE): "Sentsazioa dugu 2016a urte perfektua izan dela, eta sentitzen dugu ukitu kritikoa ematen badiogu. Sozialistok ez dugu horrela ikus-

ten. Eskatutako mailegua handi samarra izan da, eta iaizko jardueran zehar argiak eta itzalak izan dira. Udalak, esaterako, alde bakarreko erabakiak hartu ditu hainbat herritarren ordezkariak kontuan hartu gabe. Lurrazpiko edukiontzia kendu dituzte, batzordeetan horri buruzko bozketa egin gabe. Zumea plazan bus geltokiak aldatu dituzte, eta horren berri email bidez izan genuen. Bi gai hauetan parte hartzerik ez da izan. Kudeaketa ez da ondo egin".

Lehen txanda eta gero, Jon Zuluetak hitza hartu zuen Maidar Lainezi erantzuteko: "2016an PSE-EEk agertu dituen kritikak horiek baldin badira, iaizko jarduera orduan bikaina izan da. Bere garaian bi kasu horiei buruz luze eta zabal eztabaidatu genuen, eta beharrezko ziren erantzun guztiak eman ziren. Esan behar dudana da keak entzun izan ditugula zuen aldetik, baina denbora honetan ez duzuela inolako proposamen zehatzik aurkeztu".

Lainezek ere hitza hartu zuen bigarren aldiz. Egindako kritikean sakondu zuen, "herritarren ordezkari garenaz, hainbat gairen inguruan dauden desadostasunak adieraztea dagokigu".

Aurrekontuaren bozketa
13 alde | 4 aurka

Duintasunaren Kolunbarioa zabaldu dute Elgoibarren



Ana Carrere alkateak Asu baserrian erail zuten brigadistaren gorpuzkinak hilonbiratu zituen Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa.

Duintasunaren Kolunbarioa inauguratu zuten astelehenean Elgoibarren, "demokrazia eta askatasuna babesteko bizia eman zutenen memoria ohartzeko eta haien eredu goratzeko". Bertan 1936ko gerrarekin zerikusia duten 27 gorpuzkin hilonbiratu dira. Aurrerantzean azaldu daitezkeen gorpuak ere bertaratzeko asmoa dago.

ASUN ERAILDAKOA

Gorpuzkin horien artean Asu baserriko inguruetan (Leizotz auzoa) topatutako errepublikanoaren arrastoak daude. Identifikatu gabe jarraitzen du oraindik, eta Elizondo familia-kideek eman zuten testigantza araberak, Belgikatik etorritako pertsona behar zuen izan, Errepublikaren sistema

demokratikoa defendatzeko Europatik heldu ziren brigadistetako bat. Molaren tropek Andoain militarki hartu zuten, abuztuaren 16an, Leizotz bailaran atxilotu eta Asuko lursailetan fusilatu eta lurperatu egin zuten. 2003ko azaroaren 23an azaleratu zuten, Aranzadik eta Oroitz elkar-teak elkarlanean.

27 gorpuetatik hogeita bostek identifikatu gabe jarraitzen dute. Hamabi udalerritan topatu dituzte gorpu horiek: Andoainen, Arrasaten, Azkoitian, Elgetan, Elgoibarren, Legution, Lemoan, Mañarian, Mutrikun, Gaubean, Zaldibian eta Zigoitian.

Ekitaldian zehar Andoaingo Udaleko **Ana Carrere** alkateak eta **Agustin Alberro** zinegotziak eman zioten lur Asuko brigadistari.

Iñigo Urkullu lehendakariarekin batera bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta udalerrietako ordezkariak eta baita memoria historikoaren berreskurapenaren aldeko zentzuzko erakundeetako ordezkari ere. **Maribel Vaqueiro** Aldundiko Bizikidetzako eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako burua bertan izan zen.



Ordezkaritza zabala bildu zen.

Merkatu azoka otsailaren 7an itzuliko da Makaldegira



Txapa lakatuzko materialez egina dago aterpe berria.

200 metro karratuko aterpe berria eraikitzeke lanak amaituta, datorren asteko merkatu egunetarako erabil-

garri izango da. Gauzak horrela, merkatua Goikoplazatik Makaldegira eramango dute berriro.



JON ANDER UBEDA • ANDOAIN

Errealitatea, fikzioa, ikuskizuna

Errealitatea fikziora eramanez, David Simon AEBko kazetariak HBO katerako serietzarra idazteko osagai guztiak aurkituko lituzke Ama Kandida etorbidean. Honakoa izan liteke kapitulu bakoitzeko irekiera sekuentzia: Musika latino entzuten dela Caritaseko egoitzarako bidean errepidea semaforoa gorrian zeharkatzen duten afrikar jatorriko haurrak, bidean aurrera salgai edota alokairuan dauden lokal hutsak errenkadan, kamera biratu eta zine eta bideo eskolako kamioiaren ondoan BMW zaharri turboa aldatu dion gazte koadri-la eztabaidan, pausoa luzatu eta pabiloi bateko eskaileratan gora dantza latinoak irakasten ari diren akademiako irudiak, zeinaren bertako leihoaren parean su hartutako eraikinaren kanpoaldea ikusten den. Eta bertan poliziaren ibilgailu bat: No entry.

20 segunduko sarbidea, errealitatea fikzioa eramanez.

Aurreko osteguneko gertaera, zeinean sutearen ondorioz Ama Kandida etorbidean bertan bizi zen pertsona bat hil zen, The Wireko seriearen laugarren denboraldian txerta zitekeen. Bereziki denboraldi horretan, kazetaritza eta haren aldaera ezberdinak tramaren gakoe-takoa baitira. Sinesgarritasun handiko elkarrizketak aurki daitezke seriean, horregatik bereziki gogoko dut The Wire. Egunkari bateko erredakzioaren egunerokoa fikziora eramaten asmatu zuten, maisuki.

LEHEN KAPITULUA:

“SAPAIA OSORIK, KEA LEIHOETATIK”

Agentziek, hari segika teletipoak irensten dituzten kazetariak eta iritzi publikoa nahieran bideratzeko eraginkortasun itzela hartzen ari den Googlek albistea hasieratik itxuraldatu zuten. Sarean geratu den informazioari erreparatu gero, aurreko astekoa “sin techo” edota “etxegabe” baten hilketa izan zen. Gertaera bera baino gehiago, hildakoaren izaera nabarmendu zuten hasieratik.

Andoainean udaltzainek, gizarte zerbitzuetako teknikariek, Udal ordezkariak eta herritar askok jakin bazekiten eraikin horretan jendea bizi zela, sapaia eta pareta artean. Urte luzez, gainera. Bertan errotatuta zeuden, zergak besteak bezalaxe ordaintzen zituzten eta horietako batzuk bertakoak dira. Sutea piztu arte goizero lan egitera zihozten pertsona arruntak ziren, gutako gehienak bezalaxe.

Beraz, zertara dator “sin techo” edota “etxegabe” adiera hori? Google teletipoen lehen albiste horren kopiaren kopiarekin elikatu eta gizendu da. Eta hori geratuko da Googlen, kazetari alferren hemerrotekan.

Ana Carrere alkatearen adierazpenak, bertako eraikina bizitoki egonkorra zela aditzera ematen zutenak, EITBn emititu zituztenerako beranduegi zen. Txiro bat, bazterkerian galduta



zegoen pertsona hil dela geratu da sarean. Andoainean urtarrilaren 26an hil zena gizon bat izan zenean. Gizon arrunt bat, beste inolako adierarik erantsi gabe.

Errealitatea fikziora eramanez, nago The Wire teleailean albistea lantzeko moduari buruzko eztabaida izango zutela teletipoak irakurtzen dituen kazetariaren eta erredaktore buruaren artean.

BIGARRIN KAPITULUA:

“ARRAINEN MEMORIA”

Seriearen bigarren kapitulurako geratuko litzateke, heriotzaren osteko orduetan sutearen uesteko erantzuleari tartea ematea. Egunkari salduenak Gipuzkoan albistea argitaratu zuten urtarrilaren 28an: “A la caza de ‘Semi’, el sospechoso del incendio de Andoain. Todas las policías buscan el rastro del sospechoso del incendio de Andoain. El presunto autor, un magrebí de 38 años, continúa en paradero desconocido y allegados suyos afirman que podría haberse desplazado hasta Barcelona”. Ordurako sarean aski zabalduta zeuden mezu xenofoboak: “Cerdo de nacimiento, moro y asesino”, “Moro bastardo y asesino” eta antzekoak. Azkar asko ateratzen zaio bati baino gehiagori barruan daraman arrazista.

Eta ez dakit ba, nahiko nuke The Wireko teleaileko erredakzio batzordean biziko banintz, eskarmentudun kazetari batek Ama Kandida etorbidean bertan 2012an gertatu zen beste hilketa gogoa hartzea. Orduko hartan, Urnietatik datozenentzat, Kaletxikiko sarreraren zegoen eraikin hartan Moses Kargbo Sierra Leonako herritarra hil zuten. Okupatutako etxea zen hura ere, eta Moses etxean hartu zuen gazteak berak hil zuten. Kolpeak buruan joz, haren gorpua armairuan sartu zuen. Gorpua usteltzen ari zen eta usain jasanezin ho-

rrek eraikinean bizi ziren gainerako pertsonen arretra piztu zuen. Poliziak eta emergentziako pertsonak hilda aurkitu zuten. Hilketaren egilea handik egun gutxira atxilotu zuten. Reginal Ross du izena, orduko hartan 24 urte zituen Ameriketako Estatu Batuetako herrikidea. Antzeko zerbait esango luke The Wire teleaileko eskarmentudun kazetariak: “Joan Googlera, ikertu sareetan. Ezetz topatu ‘Cerdo de nacimiento, yankee y asesino’, ‘Yankee bastardo y asesino’. Orduko hartan, bestalde, ez ziren inon ‘sin techo’ edota ‘etxegabe’ adierak erabili. Eta zer eta hildakoak etxean tokia egin zion gazte hura, kalean galduta eta etxerik gabe zegoen gazte bat izan zenean!”.

HIRUGARRIN KAPITULUA:

“LERRA ARTEAN IRAKURRI”

Ertzaintza.net webguneak azaltzen duen moduan eman zuten Euskadi irratian albistea, euskaraz hori bai, urtarrilaren 29an: “Efectivos de la Ertzain-etxea de Oria han detenido en la mañana de hoy, domingo, en Tolosa a un varón de 39 años de edad, por su supuesta implicación en el incendio registrado el pasado jueves en un inmueble ubicado en Andoain. El arrestado (...) se ha personado en la Ertzain-etxea de esta localidad, donde se ha procedido a su detención”.

The Wireko kazetariak, albistea eman aurretik, Ertzain-etxera deituko luke. Baina hori egin aurretik goizean erredakzioa garbitzen ari den lankidearekin Ertzaintza.net webguneak dioena irri eta algarara artean aztertuko luke: “Jesusmariatajose! Ertzain-etxean bere burua aurkeztu zuen. Eta atxilotu egin dutela esanez ireki dute prentsa oharra! Baina zer uste dute hauek, irakurlea tuntuna dela?”. Eta kafea esku batean duela, bestearekin telefonoa hartu eta Ertzain Etxera deituko luke:

“-Aizu Jimmy, zer moduz? Nick naiz. Esaidazue zer edan duen albistea horrela landu duenak. Ustezko egilea atxilotu egin duzue? Ala bere burua aurkeztu du komisaldegian? Bata edo bestea, arraioa!”.

“-Popatik hartzera, Nick! Zer egiten duk goizez erredakzioan? Hik duaken soldata mixerablea zeukeat nik ere. Gauean ikusiko haut beisbol partidaren. Gora Baltimore Orioles!”.

LAUGARRIN KAPITULUA:

“ALOKAIRUAN, SALGAI”

Ama Kandida etorbidea eramateko modukoa da. Honaino irakurri duzun andoaindar hori, jaitsi zaitez Rikardo Arregi kaletik Bazkardo aldera. Eta behin Ama Kandidara iritsita, Kaletxikoino zuzengune luzea oinez egin ezazu Iturri jatetxea eta Buruntza tailerreko espaloitik. The Wire moduko serietzarrean irudikatzen duen lokalizazio erreala. Segi oinez aurrera eta errenkadan merkatalgune abandonatuak topatuko dituzu: auto kontzesionarioa, liburu denda, supermerkatua, bulegoak, dendak. “Alokairuan”, “Salgai”..., ilara luzea da. Aurrerago eginez, metro gutxira lau taberna topatuko dituzu. Errepidearen bestaldekoentzat gasolindegieremua da. Tabakoa, alkohola eta Marca egunkaria: eremu librea langileentzat. Hortik zuzengunean gora gorpildun aukian ezinezko egiten den 1970ekoak dirudien espaloia, logelak eskuekin uki daitezkeen lehen solairuak, eta pipiak janda edota belar txarrek hartutako fabrika eta tailer abandonatuak. Utzikeria harrigarri eta era berean zirrargarria eskaintzen du Ama Kandida etorbideak. Fikziora eramateko modukoa. Serieak gehiagorako eman dezake. Errealitateak ez, gaurkoz. Erredakzioa itxi eta astekaria inprentara bidaltzeko ordua da. Print.



KIROL ALBISTEAK

Senior mailako pilota, Urnieta Kirol Elkarte

URNIETA 22-20 AZKOITIA

Julen Loitegi-Imanol Odriozola. Udaberri txapelketan, eskuz binaka, hirugarren garaipena jarraian lortu dute eta gauzak horrela sailkapenaren lehen postura igo dira. Helburua final-aurrekoetara iristea da.

URNIETA 40-32 USURBIL

Julen Loitegi-Eñaut Esnaola. Gipuzkoako trinketeko lehen mailako txapelketan faboritotakoa garaitu zuten, eskuz binaka. Final-aurrekoaren bila doaz, eta hortik finalarekin amastera.

ASTE BURUKO PARTIDAK

Otsailak 3, ostirala:

Behar Zana-Urnieta
Udaberri Txapelketa.
Eskuz binaka. Senior.
19:00 Villabona.

Otsailak 4, larunbata:

Urnieta 1-Soraluze 1
Urnieta 2-Lagunak
Udaberri Txapelketa.
Gomazko paleta. Senior.
10:30 Urnieta.

Otsailak 5, igandea:

Urnieta-Eple
Gipuzkoako txapelketa.
Trinketea.
Eskuz binaka. Senior.
11:30 Irura.

Leizaran eta Urnieta garaipenaren bidean

SENIOR MUTILAK:

Saieko 31-36 Leizaran
Urnieta 28-25 Egia

14. jardunaldia, asteburuan:

Leizaran-Eibar. Lar, 15:30.
Soraluze-Urnieta. Ig, 13:00.

SAILKAPENA. 13. jardunaldia:

1. Ordizia	24
2. Leizaran	18
3. Urnieta	18

SENIOR NESKAK:

Leizaran 24-18 Urnieta

Ganbara saski taldea asteburuan Allurralden

Asteburuko emaitzak:

ZAST 61-67 Ganbara SenM
TAKE 38-42 Ganbara JubM
Ganbara KadM 38-78 Erroibide

Partidak Allurralden:

Ganbara JubM-Easo. 09:00.
Ganbara SenM-Soraluze. 19:15.
Otsailak 4, larunbata.

Erregional mailako futbola

18. JARDUNALDIA. Emaitzak:

Euskalduna 1-3 Allerru
Roteta 0-1 Urnieta

19. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Orioko-Euskalduna. Lar, 16:30.
Urnieta-EAS08. Lar, 18:00.

SAILKAPENA. 18. jardunaldia:

1. Añorga	39
6. Euskalduna	27
10. Urnieta	22

EMAKUMEZKOAK

17. JARDUNALDIA. Emaitzak:

Urnieta 2-0 Intxaurdi

18. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Allerru-Urnieta. Lar, 19:45.

SAILKAPENA. 16. jardunaldia:

1. Touring	37
2. Ordizia	37
3. Ostadar	35
4. Urnieta	32

Kadete mailako neskak

2. JARDUNALDIA. 1. multzoa:

La Salle 1-3 Urnieta

3. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Zestoa-Urnieta

SAILKAPENA. 2. jardunaldia:

1. Añorga	6
3. Urnieta	6

2. JARDUNALDIA. 2. multzoa:

Euskalduna 1-6 Touring

3. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Euskalduna-Hernani

SAILKAPENA. 2. jardunaldia:

1. Touring	6
7. Euskalduna	0

BURUNTZALDEA IKT TALDEA BIKAIN NEGUKO LIGAREN AZKEN SAIOAN



Donostiako Bidebieta auzoko igerilekuan jokatu zen Neguko Ligaren azken jardunaldia. Oso pozik itzuli ziren handik. Larunbat honetan, otsailak 4, benjamin eta alebin mailako 50 metroko sailkapen probak Lasarte-Orian, 15:30ean hasita.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest



Jon Barandiaran
Iruñea.
Haur Hezkuntza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · OTSAILAK 11
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ÕÑATI · OTSAILAK 11
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia


ARETXABALETA · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 9
OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etexe etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneean.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan), **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 2TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero
 ■ **Oharra:** Piano jaialdia dela eta, film emanaldirik ez dago. Otsailak 4-6.
 ■ **“Toni Erdman”** Otsailak 11-13.

Urnietan, Sarobe
 ■ **“Zipi Zape”** 16:00, 18:00. 4 euro. Otsailak 12, igandea.

Kanpaina

Urnietan
 Udalak parte hartze prozesua abiatu du. Informazio karpa:
 ■ **Otsailak 3, ostirala:** 10:00-14:30 Etxeberri plaza. 17:00-20:00 Guria ondoan.
 ■ **Otsailak 4, larunbata:** 10:00-14:30 S. Juan plaza. 17:00-20:00 Kiroldedia.

Batzarrak

Urnietan
 ■ Denda Berriren batzarra. 17:30 Denda Berri. Otsailak 4, larunbata.

Farmaziak

Andoain
 ■ **Pajares.** Gaez: Etxebeste. Otsailak 4 eta 5.
Urnietan
 ■ **Aldabe.** Gaez: Etxebeste. Otsailak 4 eta 5.

Jaialdia

Andoain, Bastero
 ■ **Piano Jaialdiaren** atarikoak: **Ikasleen emanaldia:** 19:00 Ekitaldi aretoa. Otsailak 2, osteguna. **Kontzertu didaktikoa:** 17:30 Auditorioa. Otsailak 3, ostirala.
 ■ **Piano Jaialdia:** 09:30-20:30. Otsailak 4, larunbata. 09:30-19:30. Otsailak 5, igandea.

Musika

Andoain, Gaztetxea
 ■ **Isuo eta Kezman** musikariaren emanaldi akustikoa. 18:30. Otsailak 5, igandea.

Deialdia

Andoain, Bastero
 ■ **“Martxoak 8, 8 emakume”** aurtengo ekitaldian omen-duko dituzten 8 emakume-ak hautatzeko prozesua abiatu da. Non: Ataria, Allurralde, ambulatorioa, andoain.eus. Urtarrilak 31-Otsailak 12.

Erakusketa

Andoain, Bastero
 ■ **“Ikimilikiliklik”.** Erakusketa gela. Otsailaren 16ra arte.

Santa eskea

Urnietan
 ■ **Udalak** sustaturiko taldea. **Otsailak 4, larunbata:** 16:00 Entsegua, Lekaio. 17:00 Irteera, S. Juan plaza.
Andoain
 ■ Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren taldea. 18:00 Dr. Huitzi kalea. Otsailak 4, larunbata.
 ■ **Goiburuko** auzotarrak. 15:00 San Esteban. Otsailak 4, larunbata.

Antzerkia

Urnietan
 ■ **“Por los pelos”.** Komedia dibertigarria, ikusle goaren laguntzarekin hiltzailea nor den aurkitzen saiatuko dira. 19:30 Sarobe. 3 euro. Otsailak 5, igandea.

Dantza

Andoain, Bastero
 ■ **“Nagare”**, Logela. 21:30 Auditorioa. 10 euro. Otsailak 10, ostirala.


Lehiaketa

Andoain, Bastero
 ■ **“Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna - 2017”** kartel lehiaketa. Epea: Otsailak 3, ostirala.


ZORION AGURRAK



ZORIONAK Tiokurtarrilaren 23an, 94 urte egin zituen. Bizitza nola aurre egiten diozun ikustea guretzat ederra da. Txokolata bat hartuko dugu elkarrekin? Iker, Maialen, Ibai, Imanol, Julen. ANDOAIN	ZORIONAK Imanolek 12 urte bete zituen urtarilaren 31n! Aldapan gora pausorik pausorik... Aupa gaztel! Goazen Erreala! Ibai, Iker, Maialen, Julen, Laiene, Patxi, Irune, Ander, Noa eta Alex. ANDOAIN	ZORIONAK Maialen Ipintza Gurrutxagak, otsailaren 7an beteko ditu 23 urte, jarraituz ametsak bete-tzen! Hurrengo Andoain-New York-Andoain? Good traveling! Iker, Ibai, Imanol eta Julen. ANDOAIN	ZORIONAK Iker Ipintza Gurrutxaga, otsailaren 9an 20. kantelaitzilikotuz? Hasi dantzan... Bixotza suten... eta nahi dodan moduen bizi naiz ni! Maialen, Ibai, Imanol eta Julen. ANDOAIN
--	--	---	--



ZORIONAK Irune Amindari Portillok, hilaren 30ean 4 urte. Lehengusuek 7 txololazekoko muxu bidaltzen dizkizue. Laiene, Patxi, Ibai, Imanol, Alex, Noa eta Ander. ANDOAIN	ZORIONAK Aitorrek ere urteak egiten ditu, 23? 32? Ospatu beharra dao.... txobxxxx! (Lleva... llevame en tu bicicleta...). MTZZ pilla pilla patata tortilla! Julen, Elieta Ane. ANDOAIN	ZORIONAK Urtarrilaren 12an Jose Antonio Huizik 80 urte bete zituen. Zorionak aitona eta jarraitu orain bezain alai izaten! Muxu handi bat. Etxekoak. ANDOAIN	ZORIONAK Araia Goñi eta Jon Artola, zorionak eta muxu bat osaba ilobei etxeko guztin partez. Ondo-ondo ospatu bikote, datorren otsailaren 8an. ANDOAIN
---	---	--	--



ZORIONAK Urtarrilaren 28an Ikerrek lau urte eta urtarilaren 30ean Haitzek urte bete zituzten. Zorionak bikote! A ze bikote bihurria gainera. Ikeragari mai-te zaituztegu. Aitaxo ea amatxo. ANDOAIN	ZORIONAK Oihana Arrutik 10 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Besarkada beroa. Etxekoak! ANDOAIN
---	---



Zertan gastatu aurrekontuko 100.000€?

parte hartuz
 Aurkeztu zure proposamenak
 Urtarrilaren 24tik otsailaren 12ra arte

INFORMAZIO KARPA
Otsailak 3, ostirala:
 • 10:00-14:30 Etxeberri plaza.
 • 17:00-20:00 Guria ondoan.
Otsailak 4, larunbata:
 • 10:00-14:30 San Joan plaza.
 • 17:00-20:00 Kiroldedia.